

UDAL ADMINISTRAZIOA

7

ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

Urteta zabortegian baimendutako isurketak egiteagatik ezarritako tasak bertan behera uztea, eta tasak arautzen dituen ordenantza fiskala indargabetzea. Behin betiko onarpena.

Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak, 2014ko abenduaren 15ean egin zuen ohiko bilkuran, Urteta zabortegian baimendutako isurketak egiteagatik ordaindu beharreko tasak bertan behera uzteari, eta tasak arautzen dituen ordenantza fiskala indargabetzeari behin-behineko onarpena eman zion.

Erabaki hori eta dagokion espedientea jendaurrean erakusgai jarri ziren, 30 lanegunez, iragarakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuz, 2014ko abenduaren 23an (244 zk). Epe hori amaitu da eta ez da erreklamaziorik aurkeztu, beraz, hartutako erabakia behin betiko bilakatu da eta iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Hori guztia argitara ematen da uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.4 artikulua ezarritakoa betetzeko, jendeak horren berri izan dezan eta agindu horrek aurreikusten dituen gainerako ondorioetarako.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesatuek Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko dagokion aretoaren aurrean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Dena dela, interesatuek erreklamazio ekonomiko administrazioa aurkez dezakete administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu aurretik. Erreklamazio hori Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioari aurkeztu behar zaio, aipatutako erabaki horiek eta Ordenantza Fiskal hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

Zarautz, 2015eko urtarrilaren 30a.—Amaia Guruzeta Aizpurua, lehendakaria. (896)

MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA

Aprobación definitiva de la supresión de las tasas por vertidos autorizados en el vertedero de Urteta y derogación de la ordenanza fiscal reguladora de las mismas.

La Comisión Ejecutiva de la Mancomunidad Urola Kosta, en sesión ordinaria celebrada el 15 de diciembre de 2014, acordó aprobar inicialmente la supresión de las tasas por vertidos autorizados en el vertedero de Urteta y la derogación de la ordenanza fiscal reguladora de dichas tasas.

Sometido el expediente a información pública mediante publicación efectuada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa el 23 de diciembre de 2014 (n.º 244), y habiendo transcurrido el plazo de treinta días hábiles sin que se hubiesen presentado reclamaciones u observaciones, se entiende definitivamente adoptado el acuerdo, que entrará en vigor al día siguiente de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Todo ello se publica en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 16.4 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento y demás efectos previstos en el expresado precepto.

Contra este acuerdo los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente hábil al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Elo no obstante, los referidos interesados podrán optar por interponer, con carácter potestativo y previamente a la vía contencioso-administrativa, reclamación económico-administrativa ante el Tribunal Económico Administrativo Foral de Gipuzkoa en el plazo de un mes, contado a partir del siguiente día hábil al de la publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de los referidos acuerdos y Ordenanza Fiscal.

Zarautz, a 30 de enero de 2015.—La presidenta, Amaia Guruzeta Aizpurua. (896)